# OSATEK-GALDAKAO EZARRITAKO ERRESONANTZIA MAGNETIKO DIGITAL BERRIRA BISITA / VISITA A LA NUEVA RESONANCIA MAGNÉTICA DIGITAL DE OSATEC-GALDAKAO

**2015-12-30 Galdakao 30-12-2015**

***Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari***

Sailburua, osasun saileko goi kargudunok, Osakidetzaren zuzendari orokorra, OSATEK-eko zuzendari orokorra, zuzendari gerente berria, zorionak, eta OSATEK osatzen duzuen profesional guztiok eta Galdakaoko ospitaleko eta OSI barrualdeko baita arduradun eta profesionalok, jaun andreok, egun on.

Aitortu behar dut oso berri pozgarria dela niretzat euskal osasun-sisteman abiarazten dugun inbertsio bakoitza. Euskadin 1.572 euro inbertitzen ditugu pertsonako, estatuko batez besteko kopuruaren oso gainetik. Osasunaren eta euskal osasun-sistema publikoaren aldeko konpromisoaren erakusgarri da.

1.260.000 euro bideratu ditugu erresonantzia magnetikoaren azken belaunaldiko ekipo hau erosi eta instalatzeko, gaur ikusi egin duguna. Ekipo honi esker, oso zehatz aztertuko dira nerbio-sistema zentrala, odol-hodien apartua eta hezur- eta muskulu-aparatua.

Erresonantzia magnetiko honen bitartez, 8.000 miaketa baino gehiago egingo dira urtean Galdakao-Barrualde OSIan. Eta orain arte diagnosirik jaso ezin zuten pazienteak aztertuko dira.

Con la inauguración de esta resonancia magnética Osakidetza continúa en la mejora tecnológica de sus equipamientos, un aspecto en el que siempre ha estado en vanguardia.

Esta nueva instalación permitirá estudiar de una forma todavía más precisa: el sistema nervioso central (para diagnóstico de tumores, enfermedades inflamatorias, traumáticas o degenerativas); el aparato vascular (realizando estudios de la circulación arterial y venosa con o sin contraste, lo que en ocasiones evitará el uso de técnicas más invasivas como el cateterismo); y el aparato musculoesquelético, (para el estudio de las articulaciones, con la nueva posibilidad de evaluar las lesiones precoces del cartílago).

Permitirá, además, desarrollar estudios funcionales en distintas regiones anatómicas: para valoración de la actividad cerebral, de la motilidad intestinal, estudios de cardio-stress, y un largo etcétera de funciones.

Osakidetza ha invertido 1.260.000 euros en la compra e instalación de este equipo de última generación que hoy acabamos de ver.

En el caso del Hospital Galdakao-Usansolo, esta Resonancia Magnética recién instalada realizará en torno a las 8.000 de las 30.000 exploraciones que se ejecutan en el centro anualmente. Asimismo, con este nuevo equipo se podrán realizar estudios a pacientes que hasta ahora no podían ser sometidos a este tipo de exploraciones.

Gracias a la novedosa tecnología que aporta, la señal se digitalizará en el propio equipo, junto al paciente, gracias a lo cual, toda la información se transmitirá posteriormente por fibra óptica hasta el sistema principal.

Quiero agradecer por ultimo, el trabajo a todas y todos los profesionales de Osakidetza. Y en especial a los 27 profesionales de OSATEK-Galdakao por la labor y la profesionalidad con la que desempeñan a diario su trabajo y que hace que los vascos y vascas, y en concreto los vecinos y vecinas de la OSI Barrualde-Galdakao confíen plenamente en Osakidetza.

Eskerrak eman nahi dizkiet beraz, sailburuari eta OSATEK osatzen duten kontseiluko kide guztiei, ahalegina egiten dute-eta osasun arloan Euskadik inbertsioari eutsi diezaion, baita inbertsio hori gehitu dezan ere. Hezkuntza, gizarte zerbitzuak eta osasuna lehenesteak esan nahi du beste sail batzuk ere ahalegina egin eta laguntzen ari direla Euskadi gaur puntako erkidegoa izan dadin gizarte konpromisoan.

Beraz, osasun sailburua baina baita ogasun sailburu ordea eta beste profesional guztiak osasun sistema osatzen duzuen zorionak, eta aprobetxatuz gaurkoan, agian bihar ez dugu aukerarik izango elkar ikusteko, gabon zahar egun on bat igaro dezazuela eta datorren urtean ere urte zoriontsu izan dadila.

Eskerrik asko.